

Neguko Gida

2017 // NEGUA

LIBURUAK, DISKOAK ETA FILMAK



GIDA HAU OSATU DUTEN LIBURUTEGIAK:


- Aramaioko Udal Liburutegia
- Aretxabaletako Udal Liburutegia
- Arrasateko Udal Biblioteka
- Bergarako Udal Liburutegia
- Eskoriatzako Udal Biblioteka
- Legazpiko Udal Liburutegia
- Oñatiko Udal Liburutegia




0+ urte



OTSOAREN IPUINA
Véronique Caplain (TTARTTALO)
Aker aitek bi antxumeak lasaitu behar ditu etengabe, eta behin eta berriz errepikatzen die otsoak ez daudela, baina... ez gaude hain ziur, ezta? Ilustrazio deigarriak eta umorea ate joka datoz.




ABC
Xavier Deneux (COMBEL)
Un abecedario visual en inglés que mediante el color, el dibujo, las formas y las letras que se pueden repasar con los dedos, llamará la atención de los más pequeños.



ESTO NO ES UN LIBRO
Jean Jullien (PHAIDON)
¿En qué puede convertirse un libro? En un ordenador, en un camping, en la boca de una gigantesca culebra... Ingeniosa propuesta que invita al juego imaginativo y a pensar de forma creativa sobre objetos cotidianos. Mucho más que un libro.



BOST MINUTUKO LASAIALDIA
Jill Murphy (PAMIELA)
Umeak gosaltzen ari diren bitartean, Itzel andreak bake eta lasaitasun pittin bat besterik ez du nahi, bere bainuontzi bero apartsuan. Baina Lester, Laura eta umetxoak utziko al diote bainua hartzen?




BAIONAKO ALARGUNA
Patacrúa (TXALAPARTA)
Baionako alarguna zerbaiten bila dabil eta bidean hainbat pertsoniarekin topo egingo du. Lortuko al du aurkitzea? Haurrei iragarpenak eta konexioak egiten irakasten dien metatze ipuin honek, eguneroko objektuekin egindako ilustrazioak ditu.



¿Y MI SOMBRERO?
Masanobu Sato (PASTEL DE LUNA)
Un extraño animal pierde el sombrero de su abuelo. ¿Dónde estará el sombrero? Ayúdale a buscarlo y pasarás un buen rato. Libro-juego con originales ilustraciones en blanco y negro.


6+ urte



ANGELIKA MILAPATRIKAREN PATRIKAK
Quentin Blake (PAMIELA)
Angelikak patrika pila bat du. Zer gordetzeko ote? Kolorez beteriko ipuin errimatu dugu, gauzarik bitxiak gordetzen dituen pertsonaia dibertigarri bati buruzkoa. Irudimena areagotzeko liburua da, Quentin Blake handiaren berezko estiloan idatzia.



ILARTXO
Davide Cali (IBAIZABAL)
Ilartxo txikia da, baina aukera izango du izan nahi duena lortzeko, indarra eta kemena jartzen dituelako ametsak bete ahal izateko. Barbantxo herri ipuinaren egokitzapen moderno eta umoretsua.



GRUFALOA
Julia Donaldson (BRUÑO)
Grufaloak letagin izugarriak ditu, atzapar zorrotzak eta sendoak, eta garitxo pozoitsu bat sudurraren puntan. Horregatik, basoko animalia guztiek ihes egiten dute ikusten dutenean! Ausartuko al zinateke baso horretara joaten?



EL MUSEO DE TRONQUITO
Ashild Kanstad Johnsen (NÖRDICA)
Tronquito recoge todo aquello que le gusta, es un gran coleccionista y monta su propio museo. Una historia original con ilustraciones llenas de detalles y con muchas buenas ideas para aquellos a los que les apasiona acumular objetos.



AZKEN GUTUNA
Antonis Papatheodolou (PAMIELA)
Gaur postari baten azken lan eguna da eta inoiz ahaztuko ez duen zerbait gertatuko zaio. Hitzak haizeak eraman ditzake baina album eder honen oroitzapenak zure gogoan luzaroan iraungo du.




EL VIAJE
Francesca Sanna (IMPEDIMENTA)
Una familia emprende un viaje a lo desconocido huyendo de la guerra. Sombras inquietantes y personajes inmensos simbolizan el horror, el miedo y las adversidades que sufrirán. Lamentablemente, refleja un tema de plena actualidad.


9+ urte



TXINARA BIDAIA
Béka eta Marko (HARRIET EDICIONES)
Komiki hauei umorea eta kritika darizkie, umore zuria eta kritika adeitsua baina zorrotza. Familia guztiak barre egingo du, bidaietan ematen diren egoera xeble hauek ikusita.




JIRA, PELI ETA HIRUROK
Roald Dahl (ZUBIA)
Talde aparta osatzen duten hiru hauek abentura zoragarriak biziko dituzte; horrela ospatzen dugu 2016an Dahl handiaren urteurrena, itzulpen eder eta saritu baten eskutik.




LA ERA DE LOS DINOSAURIOS: LA TRAVESÍA (CÓMIC)
Ricardo Delgado (NORMA)
Un cómic sin palabras que narra la migración de una gran manada de dinosaurios. Escenas realistas, llenas de crudeza y detalles minuciosos que nos llevan a un mundo donde sólo el más fuerte sobrevive. Un impresionante viaje prehistórico.



TROPEZISTA
Jorge Gonzalvo (DENONARTEAN)
Amodiozko kontakizun honetan zirkuko bikote baten harremana ikusten da: lotura traketsa eta originala lirismo handiko hitzetan. Argitalpen honetarako egindako lanagatik, Elena Odriozolak ilustrazioaren Euskadi saria jaso zuen.



FENNYMORE O CÓMO COCINAR UN PERRO SALCHICA
Kirsten Reinhardt (LA GALERA)
Ya el título nos prepara al humor y extravagancia de una historia en la que nos adentraremos en una persecución emocionante con tinte siniestro. Para lectores con mucha imaginación.




LOS PROTECTORES
Roberto Santiago (SM)
“Los Apaches” son una banda de adolescentes que tienen atemorizado al barrio. Y Vicente, que se acaba de mudar al barrio, no lo va a tener nada fácil. Conoce a Bárbara, la jefa de “Los Protectores”, un cuerpo de policías secretos con los que terminará colaborando.


Gazteak




EL CHICO QUE NADABA CON LAS PIRAÑAS
David Almond (BAMBÚ)
Stand está a punto de convertirse en la gran atracción del circo, tiene el don y la magia para convertirse en leyenda. ¡Seguro que tú también te das cuenta de lo especial que es!



JANE, EL ZORRO & YO (KOMIKIA)
Isabelle Arsenault (SALAMANDRA)
Novela gráfica que habla, sobre todo, del paso de la infancia a la edad adulta y de la búsqueda de la propia identidad. Isabelle Arsenault y sus ilustraciones relatan la historia de Hélène, una joven a la que sus amigos dejan de lado y de la que se burlan.




LA CHICA QUE PATINA Y EL TONTO QUE LA QUIERE
Andrés Guerrero (LOQUELEO)
Miguel sueña con ser dibujante de cómics y está enamorado de África. Cuando la vio por primera vez le pareció la chica más guapa del mundo, y los sábados dejaron de ser simplemente sábados para convertirse en maravillosos sábados. Así es este libro, ¡maravilloso!



ASYLUM

Javier de Isusi (CEAR EUSKADI)


Marinak 94 urte ditu, baina ondo gogoan du oraindik Gerra Zibilean Otxandiotik atera eta Frantziatik Venezuelara egindako bide malkartsua. Erbesteratze hura bere bilobari kontatuz, bat egingo du Marinak duintasunez bizitzeko leku baten bila bidaia luze bat abiatu beharrean direnenekin.



MUSUA

Irati Jimenez (TXALAPARTA)

Modu bat baino gehiago dago munduari begiratzeko, baita hitzei begiratzeko ere. “Musua” hitzaren gaineko denetariko informazioa bildu eta kontzeptu horren gainean dugun ikuspegia zabaltzea proposatzen du idazle bizkaitarrak. Zer dakizu edo zer ez dakizu musuez?



TXIMELETAREN OIHUA

Jordi Sierra i Fabra (IBAIZABAL)

Zoritzarrez, gori dugun aktualitatea. Haurrak soldadu bihurtu dituen gerrate zibila Ekialde Hurbilean. Kontakizunak zalantzan jarriko du, behin eta berriz, gatazkaren sorburua: botere nahia ala fanatismo erlijiozkoa?


Helduak



LAS CHICAS

Emma Cline (ANAGRAMA)


En el verano de 1969, Evie se une a un grupo de chicas jóvenes de aspecto hippy e inconformista. La novela nos contará cómo se une a ellas y lo que modificará esta acción su vida. Fabuloso relato que se inspira en la matanza de Charles Manson.



CADA DÍA ES DEL LADRÓN

Teju Cole (ACANTILADO)

Un joven médico regresa a Nigeria después de quince años en Nueva York. Encuentra un país corrupto, a todos los niveles. ¿Merece la pena quedarse aquí y ayudar a mejorar el país?



LO ZAUDELA ZABALDU DIZKIZUT BEGIAK

Mikel Etxaburu (EREIN)


Poesia kontzientziak eraldatzeko tresna bezala ulertzen du Etxaburuk. Eguneroko martxaren itsutasunean, gainerako gizakiak ikustarazteko bide subertsiboa dela dio: “Begiratzeari utzi eta ikusten hasi behar dugu, besteen lekuan jarritz”. Blas de Otero-Bilbo Uria nazioarteko VIII. Poesia Lehiaketaren irabazlea.



33 EZKIL

Miren Gorrotxategi (ELKAR)

Baserri giroan kontaturiko eleberria da. Garizmendi baserriko Ferminekin hasten da historia. Honek, aitzurrean ari dela burezur bat topatuko du. Hortik aurrera hildako gehiago agertuko dira, misterioak dirauen bitartean. Elementu asko aurkituko ditugu eleberri beltz honetan: gorrotoa, droga, elkarriketak, flashback-ak...



HOMO DEUS, BREVE HISTORIA DEL MAÑANA

Yuval Noah Harari (DEBATE)

Segundo trabajo del exitoso historiador israelí donde nos brindará la oportunidad de realizar una profunda reflexión sobre los retos y desafíos que nos deparará el futuro en un libro que no dejará indiferente a ningún lector.



EL GIGANTE ENTERRADO

Kazuo Ishiguro (ANAGRAMA)


A Ishiguro le gusta experimentar con diferentes géneros, y esta vez ha construido una novela de aventuras ambientada en la Inglaterra medieval, en la que indaga sobre preocupaciones humanas como el amor, la muerte, la memoria y el olvido.



FERIATZAILEAK

Patxi Larrión (SUSA)

1969an, Urbasan eta Iruñean, Patton filmaren grabazioaren ingurumarian kokatzen den istorioa da “Feriatzaileak”. Martin Galdeano eta Luis, liburuko protagonistak, pelikularen lantaldearentzat lanean arituko dira, baina ez beti intentzio onekin, zerbait feriatzeko gogoz baizik. Eleberri irakurterraza, elkarriketa biziekien.



ZARRAKAMALDA (KOMIKIA)

Iñaki Martiarena “Mattin” (TXALAPARTA)

Sasiak kentzeko tresna da zarrakamalda. Baratzte bat egin eta langabeziari eta bizitza bakarti eta gordinari ihes egiteko modu baten bilaketaren kontaketa da komiki hau; zuria batzuetan eta beltza gehienetan.



EL MENTALISTA DE HITLER

Gervasio Posadas (PENGUIN RANDOM HOUSE)


Posadas nos sumerge en la Alemania de los años 30 con un magistral estilo narrativo y nos retrata un personaje real que en la sombra llegó a manejar los hilos de la maquinaria hitleriana y que predijo su llegada al poder.



UN LARGO SÁBADO

George Steiner (SIRUELA)

Steiner nos habla sobre política, literatura, mujeres, el lenguaje (su gran especialidad), los libros, la música, la ciencia, el amor, el sexo, la eutanasia... Es decir, sobre casi todo lo que puede interesarnos. Y con extraordinaria claridad, todo se le entiende.



ME LLAMO LUCY BARTON

Elizabeth Strout (DUOMO)

En una habitación de hospital dos mujeres, madre e hija, hablan sin descanso durante cinco días y cinco noches, después de muchos años sin verse. Con un enfoque intimista y una prosa concisa y fragmentada la autora crea una novela llena de hondura, belleza y emoción.




Ikur hau daramaten liburuak formatu elektronikoa ere badaude. / Los libros señalados con este símbolo están también disponibles en formato electrónico.



ELKARREKIN ESNATZEKO ORDUA

Kirmen Uribe (SUSA)


Karmele Urresti erizainaren familiari ondasun guztiak kendu dizkiote frankistek Gerra Zibilean eta kanporatu egin dituzte Ondarroatik. Erbestean, Eresoinka taldeko kide delarik, bere senarra ezagutuko du, Txomin Letamendi. Egiatzko familia honen bizipenak jasoz, gure herriaren historia garaikidea kontatzen digu liburuak.



MRS. HEMINGWAY

Naomi Wood (TXALAPARTA)

Ernest Hemingway idazleak bizitzan zehar lau emazte izan zituen. Hemingwayk etxea eta familiaren erosotasuna irrikatzen zuen arren, ezin izan zion uko egin dibertimenduari eta dibertsioari. Eta lau emakume hauek izan dute bai ze kontatu!



TAN POCA VIDA

Hanya Yanagihara (LUMEN)

Novela que nos habla fundamentalmente de la amistad, las relaciones sociales y la manera de afrontar el pasado; sin olvidar los abusos a los que se ven sometidos algunas personas. Esta es la historia de Willem, Jude, J.B. y Malcolm.



TXISTU ETA BOK

Juan Luis Zabala (ALGAIDEA)

Gustatuko zaizu liburu hau txakurrak ez ezik (txakurra baita Txistu) gustuko badituzu kultura, euskal literatura, futbola, umore beltza, ironia. Gustatuko zaizu, halaber, gustuko badituzu thrillerrak, ipuin-bildumak eta autobiografiak. Zerbait desberdina irakurtzeko gogoz bazabiltza.

Musika



BÉLA FLECK & ABIGAIL WASHBURN

Béla Fleck & Abigail Washburn (FOLK)


Bi banjo, bluegrass-a eta folk-a dira disko honen zutabea, abeslariaren lan itzela gehituta, noski. Folk disko onenaren azken Grammy saria. Trabajo entre el bluegrass y el folk de dos banjoístas virtuosos, aderezado con un gran trabajo vocal. Disco merecedor del último Grammy al mejor disco folk.



22, A MILLION

Bon Iver (FOLK)

Folk sintetikoa, lirikoa eta malenkoniatsua. Bost urte ondoren, Justin Vernon musikoaren bilakaerak ez zaitu epel utziko. Agian. Un folk sintético, desconcertante, lírico y también melancólico. Feliz regreso de un músico, Justin Vernon, imprevisible pero evolucionando.



YOU WANT IT DARKER

Leonard Cohen (POP)

Pop-aren poetaren azken lana. Hil aurreko testamentu musikal honetan, tonu ilunekoa, betiko letra sarkor eta zirikatzaileak aurkituko ditugu. Último álbum del poeta del Pop. Testamento musical previo a su muerte que, con el mismo tono nostálgico y oscuro de siempre, nos transmitirá sus letras incisivas.



OM

Izaro (FOLK-POP)

Gazte mallabitararren lehen lan honetan erritmo garden eta melodia goxoez beteriko abestiak izango ditugu entzungai, freskotasunez beteriko ahotsak zipriztinduta. Primer trabajo de la joven de Mallabia. Ritmos transparentes y melodías llenas de dulzura aderezados con una voz fresca y cálida.



TABULA RASA

Willis Drummond (ROCK)

Geldialdi baten ondoren indartsu itzuli da iparraldeko taldea bere bosgarren diskoarekin, ohikoak diren melodia zainduak eta erritmo indartsuak izango direlarik ezaugarri nagusiak. El grupo de Iparralde regresa con fuerza en su quinto disco. Unas cuidadas melodías y los ritmos contundentes serán sus señas de identidad.

Filmak



TRES RECUERDOS DE MI JUVENTUD

Arnaud Desplechin (ERROMANTZEA)

Paulek bere gaztaroa kontatuko digu pelikula honetan. Batez ere bere gogoan Esther dago, bere gaztaroko maite bakarra. Paul recuerda su adolescencia, su primer –y único– amor, sus estudios en París, los desencuentros con sus padres o las innumerables escapadas con sus hermanos y amigos.



MUSTANG

Deniz Gamze Ergüven (DRAMA)

Turkian bost ahizpa umezurtz pozik bizi dira, familia beren bizitzak zuzentzen hasi arte. Filma euskaraz ikusteko aukera duzu! Cinco hermanas huérfanas viven felices en Turquía hasta que la familia empieza a dirigir sus vidas. ¡Tienes opción de verla en euskera!



EL ABRAZO DE LA SERPIENTE

Ciro Guerra (AVENTURAK, DRAMA)

Xaman amazoniar baten eta bi esploratzaile mendebaldarren arteko gertaera epiko honek Cannesen kritika txunditu zuen. Hermosa fábula sobre el hombre, la naturaleza y los poderes destructivos del colonialismo. Reflexión crítica sobre la conflictiva relación entre la mirada occidental y la resistencia indígena.



LOST SONGS: THE BASEMENT TAPES CONTINUED

Sam Jones (DOKUMENTALA)

Musikari handiak bildu ziren Bob Dylanen omenez egindako “Lost on the river” diskoaren grabazioan. Bertan grabatu zuten dokumental ahaztezin hau. En este memorable documental músicos de la talla de Costello, Giddens, Mumford... versionan uno de los discos más influyentes de Dylan.



CORAZÓN GIGANTE

Dagur Kári (DRAMA)

Tamainaz handia eta gizatasunez are handiagoa den pertsonaia gogoangarri honen eskutik bihotzak hunkitzea lortuko duen filmaz gozatzeko aukera izango dugu. Un personaje grande en tamaño pero más grande aún en cuanto a humanidad logrará llegar a lo más hondo de nuestros corazones.